Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

238 zenbakia
2022 **iraila**

Prest!

BERBETAN: **IRATXE PALACIOS eta GARAZI ASCACIBAR** ASTE NAGUSIA 2022

ERREPORTAJEA: **KOLORE GUZTIAK ARRAZAKERIAREN KONTRA** BARKUA: **URIOLAKO ARGAZKI LEHIAKETA**

TOKIKOM

34-235-236-237-238

Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

Arrabaun Taldea Deustu

Deustuko Ikastola

Deustuko Jai Batzordea

Bihotz Alai Folklore Dantza Taldea

Deustuko Gazte Lokala

Elorri Bertso Eskola

eaj pnv deustu

S.D. Deusto

ehbildu

zirikatzen!

Deustuko Gazte Asanblada

Egunsentia Eskaut Taldea 1923tik

ernai Deustua

PARE Hautsi Patriarkatuaren Katea

Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

BASKale



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

238 zenbakia
2022ko iraila

aurkibidea

Jaione Ayestaran - Ibai Etxautz	**Iritzia**	4
Jon Enriquez Contreras	**Gureak kanpoan**	5

e **erreportajea**
Kolore guztiak arrazakeriaren kontra

Kultura ezberdinen topagune izateko helburuarekin sortu zuten Mundialito Antiarrazista mistoa duela 6-7 urte inguru. Bilboko San Frantzisko auzoan jatorria izan arren, azken bi edizioak Deustuko Erriberako futbol zelaiaren inguruan ospatu dituzte.

6

Udalekuetako abenturei jarraiki	**Udalekuak**	10
Jon Andoni Aranguren, Iharra, historiaren ebazpenaren zain	**Behin batean**	12
BetiOn greban	**Artikulua**	14

b **berbetan**
IRATXE PALACIOS eta GARAZI ASCACIBARrekin

Deustuko Tintigorri Konpartsako kidea da Iratxe Palacios eta hain zuzen ere horregatik izan da aurtengo Bilboko jaietako txupinera. Garazi Ascacibar deustuarra berriz, Bilboko Konpartsetako kidea da aspaldi. Oroitzapen politak ekarri dizkigu hiruroi Arriaga plazan elkartu eta hain berezia izan den Aste Nagusiko gertaerez mintzatzea.

16

Cadenas Vicinay (1961)	**Irudiak berbetan**	21

BERTSOLARITZA Bertsolaritzan leku baten bila

ARGAZKILARITZA Bilboko Uriolaren udako argazki lehiaketak baditu irabazleak

PINTXODROMOA Zure zain gaude!

KULTUR TXOTX Danel Abando Olabarri eta Ander Anakabe Lekue

harkua bete herba

24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Jaione Ayestaran, Ibai Etxautz, Danel Abando, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura.
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Jaione Ayestaran
Kazetaria

Itzulera

Udako soinu bandaren parte izan da Zetak taldearen kantua. Baina askorentzat orain, irailean, hartu du zentzua. Iraila edo itzulera hila. Depresioarekin fribolizatzeko unea da batzuentzat. Uztailean urrun ikusten genuen arren, iritsi da. Eta bat baino gehiago ikasturte berrirako planak egiten harrapatuko zuen irailak. Denborak ez duelako etenik. Lanera buelta, itzulera. Bada irailean oporrak hartzen duenik ere. Areago: bada sartu garela, udako oporrak urrun samar geratzen zaizkiolako. Baina nik ere badut nire itzulera. Zenbait urtez Prest! aldizkariko lantaldetik aldenduta egon eta gero, itzuli naiz. Baita gogotsu itzuli ere, nahiz eta aitortu behar dizuedan rol berria deserosoa ere egiten zaidala, ez baitut nire burua iritzi-emaile gisa ikusten. Hala ere, ilusioz ekin diot itzuleraren hilabeteari. Bizitzako gauza gehienek bezalaxe, itzulerek ere badutelako gazitik zein gozotik. Eta geldiezina den denboraren joanean, nahi dugun guztia egin ezin badugu ere, ahal duguna egin dezagun. Horixe bera egiten saiatuko naiz ni irailak ireki didan txoko berri honetan.

Ibai Etxautz
Sanikoa

"Gora musika herrikoia, pikutara regetoia"

Halaxe zioen aurtengo Elorrioko Ferixa Nausikoetan eskegitako pankarta batek. Auziak ez zuen inor epel utzi, ezta ni ere, izan ere gainditutako eztabaida zelakoan nengoen. Bururatzen zaidan lehen galdera honakoa da: zer da ba musika herrikoia? Herri konkretu batek berezkotzat dituen musika-generoak oinarri hartuz gero, nahiko zaila litzateke horiek zehaztea.

Zer garaitara jo beharko genuke? Albreteko Joanari punk doinuez (hamarkada luzez oso entzuna gurean) "God save the queen" kantatzen genion aroetara ala? Nahiko jarrera atzerakoia ene ustez. Musika herrikoia, aldiz, generoen nolakotasunera mugatzen badugu emaitza antzekoa da. Zerk egiten du genero bat herrikoi eta zerk komertzial? Galdera hutsala deritzot, izan ere kapitalismopeko musika industriak aski erakutsi du kapaza dela edozein generotatik etekin ekonomiko zein politikoa ateratzeko. Jopuntua ez genuke jarri beharko arte ekoizpenaren forman, baizik eta ekoizpen horren asmoan.

Hau da, zertarako egiten dugun musika edo zeri egin nahi dion ekarpena. Eta horrek ondorio honetara nakar: musika herrikoia kapitalaren zerbitzutik at dagoen hura bada, zergatik ezin du regetoiak edo beste edozein estilo garaikidek horren parte izan? Zein ederra litzatekeen arte estilo guztiez gozatu ahal izatea merkatu logika guztietatik at.

Jon Enriquez Contreras

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Granada
Lanbidea: Ingeniaria

“Unibertsitate giro gaztea da nagusi, leku askotako jendea biltzen da hemen”

Testua: Jone Gartzia Gerra

Granadan bizi zara, zer dela eta?

Madrilen nengoen lanean, eta enpresakoek esan zidaten Granadan jendea behar zutela. Birritan pentsatu gabe, hara joan nintzen, 2022ko otsailean. Oraindik garai horretan lanaren erdia telelanean egiten genuen Covidarengatik.

Nolako hiria da?

Oso erosoa iruditzen zait, Bilboren antzekoa. Dena dago oso gertu eta ez dago hiri handietan bezainbesteko zalapartarik. Gainera, autoa hartuta ordu erdian leku asko ezagutu ditzakezu.

Zer esan dezakezu bertako egoera sozial eta politikoari buruz?

Kalean ez da politikaren inguruan apenas ezer ikusten. Nire pisukideak Andaluziarrak dira eta bertako Parlamentuko hauteskundeetan esaten zidaten haien sentsazioa zela PPk irabazi zuela inor ez zelako bozkatzera joan. Agian bilatu behar da, baina jendea ez dut politikarengatik oso arduratuta ikusten. Jendea lasai egoten da, kalean, berera, baina antolatzen ez hainbeste.

Zer da Granadatik gehien gustatzen zaizuna?

Natorren lekuarekin alderatuta (Madril), trafiko gutxiago eta lasaitasun gehiago dagoela. Udan bero egiten du, baina urtean zehar eguraldia ona izaten da. Unibertsitate giro gaztea da nagusi, leku askotako jendea biltzen da hemen.

Eta gutxien?

Jendea ez dela oso zuzena hitz egiterakoan. Hasieran asko kostatzen zitzaidan jendea ulertzea, batez ere lanean, ez nekien zer nahi zuten, eta ahoskera ere kostatzen zitzaidan. Milaka istorio kontatzen dizkizute azkenean ezer ez kontatzeko.

Aurretik Madrilen ere egona zara, zeintzuk dira nabari dituzun desberdintasun nagusiak?

Madrilen ohituta nengoen leku batetik bestera mugitzeko garraio publikoan denbora asko ematen, baina hemen ez. Madrilgo hotza ere latza zen, ez dakit etxearen isolamenduagatik edo, baina Bilbon baino okerrago eramaten nuen, eta hemen askoz hobeto.

Zenbat denbora daramazu Deustutik kanpo bizitzen?

2019ko irailetik, pandemia baino lehen, hiru urte guztira.

Bueltatzeko asmorik duzu?

Bada, lehengo egunean esan zidaten agian Tenerifera aldatuko nautela laster, urtebetez. Hor duzue hurrengo elkarrizketarako aurrerapena! Hala ere, hori baino lehen hilabete batzuk Bilbora etortzeko aukera izango dudala uste dut.

Faltan duzu?

Bilbo erosoa da, baina azkenean faltan dudana bertako jendea da. Are gehiago esango dizut, jendea eta gaztetan lagunekin bertan egotearen oroitzapena, hori da faltan dudana. Orain Bilbora bueltatzen naizenetan jendea bere gauzetan dabil, ez da berdina.

2021eko Mundialitoa Deustuko Erriberan. Argazkia: Markel Andia

KOLORE GUZTIAK ARRAZAKERIAREN KONTRA

Kultura ezberdinen topagune izateko helburuarekin sortu zuten Mundialito Antiarrazista mistoa duela 6-7 urte inguru. Bilboko San Frantzisko auzoan jatorria izan arren, azken bi edizioak Deustuko Erriberako futbol zelaiaren inguruan ospatu dituzte.

Testua: PREST! **Irudiak:** Mundialito Antiarrazista, Markel Andia, Gotxon Otxoa.

Aurtengo edizioa irailaren 10ean ospatu dute. Egun guztian zehar areto futboleko eta saskibaloiko txapelketak izan dira Deustuko Erriberako futbol zelaian. Horrez gain, hitzaldiak, gosaria zein bazkaria, hip-hop, reggae eta afromusic motatako musika zuzenean eta arrazakeriaren aurka egiten duten hiriko kolektibo eta elkarte ezberdinen materialarekin osatutako merkatua ere egon dira. Hala eta guztiz ere, kirol-txapelketa bat antolatzea aitzakia bat baino ez da, antolatzaileen hitzetan "arrazakeriaren aurka borrokatzeko espazioak sortzea baita helburu nagusia".

Bilboko hainbat kolektibok zein norbanakok hartzen dute parte Mundialito Antiarrazistaren antolakuntzan Mispa Gracia Bahanagen arabera. Graciak adibidez, bi urte daramatza CNAAE eta AESAN elkarteen izenean ekimena antolatzen eta berak hasierako edizioak ezagutzen ez dituen arren, askotan kontatu diote ekimenak Bilboko San Frantzisko auzoan duela jatorria. "Aspaldi zeramatzaten auzoan bizi ziren atzerritik etorritako pertsonekin lan egin nahian eta azkenean zaborretan aurkitutako pilota batean agertu zitzaien erantzuna. San Frantziskotik pilotarekin jolasean igaro zirenean, lagun asko batu zitzaizkien pilotarekin jolastera". Hiriko gainerako auzoekin alderatuta, jakina da atzerritik etorritako pertsona asko bizi direla bertan. Batez ere, erakundeen zein hedabide askoren partetik datorren diskriminazioa baztertu eta kultura ezberdinen arteko elkarbizitza posible dela ikusarazi nahi du Bilbo Reggae Skins kolektiboak abiatutako egitasmoak.

Santutxuko Karmela espazioan ospatutako lehen Mundialito Antiarrazista. Argazkia: Markel Andia

Graciaren hitzetan, “San Frantzisko aberatsa da duen kultura aniztasunagatik, eta noski, kultura ezberdinetako jendearen artean dagoen elkarbizitzagatik. Hedabideak eta erakundeak aldiz, auzoa arriskutsua dela esatean tematu dira”. Ekimena zabaltzen joan den heinean, azken urteetan SOS arrazakeria, Bizinahi, CNAAE, Txarraska Gaztetxea, Pantx Records, Ozen! LGTB, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Abya Yala, Gu ere Bagara Bilbo, Acabiz, Kaikoo, Mbolo Moye Doole, Zanafrik eta Regularización Ya bezalako kolektibo eta elkarteak gehitu dira antolakuntzara.

Gero eta arrakastatsuago

San Frantziskoko Mariaren Bihotza plazatik Santutxuko Karmela espaziora egin zuten salto hasierako edizioetan, bertan partidak jokatzeko espazio nahikoa baitago. Alabaina, 2019ko mundialitoa izan zen bertan ospatutako azkena. Koronabirusak eragindako 2020. urteko geldialdiaren ostean, 2021ean Erriberan egindako mundialitoa orain arte egindako arrakastatsuena izan zen. Izan ere, guztira 48 futbol taldek jokatu zuten eta beste hogei saskibaloian aritu ziren, hau da, guztira, 445 pertsona inguru aritu ziren zelaian jokatzen. Bazkarian 600

2018ko Mundialito Antiarrazista Karmelan. Argazkia: Gotxon Otxoa

2018ko Mundialito Antiarrazista Karmelan. Argazkia: Gotxon Otxoa

pertsona izatera heldu ziren eta egun osoan zehar 1405€ batu zituzten Janari Saskia kolektiboarentzat. Egitasmoa gero eta ezagunagoa egitearen ondorioz, eta aurreko urteko esperientzietatik abiatuta, aurtengo izen ematea aurretiaz egin behar izan dute. "Lehengo edizioetan, egunean bertan mahaia jarri eta zetorren jendearen arabera taldeak antolatzen genituen. Aurreko urtean oso zaila egin zitzaigun hori horrela antolatzea eta hori dela eta, aurtengo berrikuntzetako bat aurretiazko izen ematea izan da; mundialitoa ospatu baino bost egun lehenago itxi genuen izena emateko epea".

Soilik talde mixtoak onartzen ditu Bilboko Mundialito Antiarrazistak. Futbola bera ere testuingurutik atera eta "auzo mailara ekarri nahi badugu, argi geneukan lehialtasuna alde batera utzi eta taldeak adin eta genero ezberdinetako pertsonekin osatuta egon behar zirela".

Arrazakeria mota asko

Hasieran esan bezala, larruzko pilota bat lurrean jartzea aitzaki bat besterik ez da arrazakeriarik gabeko gizarte bat aldarrikatzeko. Horiek horrela, azken bi edizioetan kirol txapelketez gain, gaia erdigunean jartzeko hitzaldiak eta mahainguruak ere egin dituzte. Antolakuntzako bi kidek 97. irrati librean egindako adierazpenen arabera, "arrazakeria kritikatzen dugunean, beti erreparatzen diogu instituzioen eta poliziaren eskutik datorren diskriminazioari, baina badira beste arrazakeria mota batzuk eta hein handi batean horien aurka egitea gizartearen esku dago" gogorarazi dute. Orokorrean pozik daude ekimenak urtero duen harrerarekin, Bilbon "horrelako aldarrikapenak batzen dituen ekintza gutxi daudelako". Hiriak halako egitasmo gehiago behar dituela ziurtatu dute.

2022ko Mundialitoan antolatutako hitzaldia.

UDALEKUETAKO ABENTUREI JARRAIKI

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA

Uda berezia da berez, eta aurtengoa, bereziagoa. Egunsentia Skaut Taldeko ia 40 lagunek uztaileko 14 egun partekatu ditugu elkarrekin Angostoko (Araba) naturagune ikaragarrian. Inguruan gehien gozatu dugun esparruetariko bat Tumecillo ibaiaren ur-presa izan da. Bertan, freskatu, bainatu eta ur jolasak egin ditugu bero bolada saihesten genuen bitartean.

Aurten bizi izan dugun abentura euskal kulturan oinarrituta egon da. Anbotoko Marik eskatu zigun lauburuan irudikatzen diren lau elementuen arteko oreka berreskuratzeko eta horretarako Zezengorriren, Basandereren, Aidekoren eta Lamien laguntza lortu genuen. Halaber, kanpamendua bestelako jarduerekin osatu dugu: txango ibiltariak egin ditugu, mendira joan gara, bertako jendea gehiago ezagutu dugu eta gauak frontoi edo bolatokietan igaro ditugu; Joko olinpikoak, alderantzizko eguna (zeinetan arropa ondo jantzita eramatea ez zen aukera bat) eta *zikin* eguna ere antolatu ditugu. Orain ikasturte berriari gogoz ekingo diogu igandero, mundu hobe bat eraikitzen saiatzen. Ikasturte hau gainera indar gehiagorekin abiatuko dugu, taldeak 40 urte betetzen baititu. Denok gonbidatuta zaudete urriaren 8an goizean, Deustun urteurrena gurekin ospatzera.

TXEPETX

Uztailaren 4tik 10era arte, Txepetxeko kideak Larraulera joan ginen udalekutara. Goizeko 10:00ak aldera San Inazioko Levante enparantzan geratu ginen, eta maletak autobusera sartu ostean abiatu ginen aurretik genituen abenturen esperoan. Etxea izugarri handia zen, milaka ezkutaleku zituen!. Hurrengo egunak ezin hobeak izan ziren: umeek 'Konkisean' parte hartzeko, esku pilotara jolasten ikasteko, mendian galtzeko eta elkarrenganako konfiantza lantzeko aukera izan zuten. Gosaria afaldu eta afaria gosaldu genuen alderantzizko egunean, eta umeak begirale izan ziren arratsalde batez. Igerilekura txangoa egin genuen, eta ginkana ezberdinen sekretuak deskubritu zituzten. Herri osoan zehar ibili ginen bueltaka, ingurua ezagutu eta disfrutatzeko intentzioarekin. Azken bi egunak ahalik eta gehien gozatzeko, gaubela bereziak prestatu genituen: beldur gaua eta disko festa. Beldur gaua elkarrekin gainditu zuten eta azken gaubelan denon artean dantza egin genuen, udalekuak datorren urtera arte agurtzeko!

TXANTXIKU AISIALDI TALDEA

Beste behin ere, maletak itxi eta udalekuetara abiatu ginen. Urte osoan zehar egindako ekintza guztiek berriz ere Mendigorriara ekarriko gintuztela jakin gabe. Inauterietan animazio saria ez irabaztetik, eskiatzera joan gineneko kolperik handienak hartzera; Aste Santuko beldur gauetik, Deustuko Jaietako paellarik txarrena egitera; Txantxikuren 20 urteak ospatzetik, gaur, Txantxiku inoiz baino biziago dagoela konturatzera. Uztailaren 16an, 80 ume eta 20 begirale udalekuak izango ziren ozeanoan urperatu ginen. Ordutik piratak, txerriak, dantzariak, abeslariak, antzerkilariak eta kirolariak izan gara. Mendigorriako igerilekuetatik pasatuz, Brasilera bidaia egin genuen samba dan-tzatzera. 11 egunez, beste urte batez, euskaraz bizitzeko, gozatzeko eta elkar zaintzeko aukera izan genuen. Ez zen erreza izan. Baina hala ere, ahaleginak eta aldaketak udalekuetako lehen egunarekin alderatuz, nabariak izan ziren. Bide hau euskararekin batera egiteko hautua egin baitugu, Txantxikuren balore guztiak gutxinaka barneratzen eta praktikan jartzen joan garelako eta udalekuetan zehar sortutako giro eder intergenerazionala denon artean partekatu genuelako. Horrelako gauzek egiten baitute berezi Txantxiku.

GAZTE ALAI

Beste urte batez kanpamendua kurtsoko momenturik desiratuena bihurtzen da bai begirale, gazte zein umeentzat. Eguneroko kezkak eta rutinak aldera batera utzi, eta aurten Brizuelan (Burgos) elkartu ginen uztailaren hasieran, hamabost egunez, adin eta izate desberdineko hamaika lagun. Kontatu ez daitezkeen lokatzborroketan zikindu ginen, abestiak eta dantzak sortu genituen eta seguruenik egun oraindik hainbatek eramango dituzten eskumuturrekoak egin genituen orduz. Halaber, aspaldi ospatzen ez zen “vivac”-a berreskuratu genuen, non guztiok denden kanpoaldean lo egin genuen izarrei begira. Eta nola ez, ahaztezinak bilakatzen diren gaubelak eta diskotekak ere urduritasunez eta irrikaz gozatu genituen.

Errekan ere hainbat eta hainbat orduz egon ginen amaigabeko bainu hotzak hartzen; laprastekoren bat tarteko. Eta, zer esanik ez, sukaldearen eta zuhaitzen itzaletan jokatu ziren xake eta partxis partida amaigabeez, beste batzuek volleyball zelaia higatzen zuten bitartean.

Urtero legez, pena handiz milaka oroitzapen bildu dituen lur zatiari agur esan genion senideekin batera, datorrenari geroz eta gogo gehiagoz itxaroten diogun bitartean. Plazer bat!

Gora Gazte Alai!

JON ANDONI ARANGUREN, IHARRA, HISTORIAREN EBAZPENAREN ZAIN

Irailean 50 urte bete dira Jon Andoni Aranguren Mujika, Iharra, deustuarra tiroz hil zutela. ETAko kidea zen eta Guardia Zibilak hil zuen Urdazubi aldean. Hogeita bat urte zituen. Diktadurak "terrorista"tzat jo zuen, baina ez da hori, inondik inora, utzi zuen gomuta. Hil eta 50 urte geroago, historiaren ebazpenaren zain dago. Ebazpen horrek, ostera, gehiago dio gure jendartearen nolakotasunaz Iharra beraz baino.

Testua: Hektor Ortega **Irudia:** Sancho el Sabio fundazioa



Iharraren omenaldi bateko kartela.

Jon Andoni Arangurenek (1951-1972) Urdazubin (Nafarroan) eman zuen azken arnasa orain dela 50 urte. Orduko hedabideek ez zuten zalantzarik izan: "Terrorista muerto en el enfrentamiento de un grupo de individuos con la Guardia Civil" (Diario de Burgos), "Terrorista de ETA, muerto por la Guardia Civil en Navarra" (La Gaceta del Norte), "Comprobada la identidad del terrorista muerto en Navarra" (Mediterráneo).

Zalantzarik gabe, terrorista zen *Iharra* 1972an Espainiako diktaduran, eta horrela jarraitu zuen Franco hil zen arte. Trantsizioan, ostera, aldaketa igarri zen. Artean isilarazitako errealitatea agerian geratu zen. Bazen *Iharra* bestela ikusten zuenik, Telesforo Monzonek eskaini zion olerkiak erakusten zuen bezala. 1980an Arrigorriagako Udalak plaza bati paratu zion *Iharra*ren izena, gazteak herri horrekin eduki zuen loturaren ondorioz. Deustun, herri ekimen batek orduko Avenida del Ejércitori *Iharra* kalea izena ipini zion, baina inoiz ez zuen ofizialtasunik lortu. Hala ere, urtero egin izan da Deustuan *Iharra* gomutara ekartzeko ekitaldirik, batzuetan poliziak zapuztu badu ere.

Izan ere, Franco hil osteko haize freskoak laster hoztu ziren. XXI. mendearen hasieran atzerakada begi bistakoa zen. 2010ean, auzi judizial luze baten ondorioz, Arrigorriagako Udalak izena aldatu zion *Iharra* plazari. Ez bere borondatez, ordea, Bilboko auzitegi batek hala aginduta baizik: ezin omen da eduki kale izendegian "ETA erakunde terroristarekin lotutako pertsonarik". Hil eta 38 urte geroago,

*Iharra*k terrorista kategoria berreskuratu zuen. Baina bestelakorik ere ekarri zuen mende berriak. Adibidez, Herrialde berdea izeneko dokumentala (2011), Hibai Castro deustuarrak zuzenduta. Ordubetez *Iharra* eta Jabier Goitia *Kabi* ETAko kideen ibilbideak batu zituen, istorio bakar bat osatuz.

Historiaren ebazpena

Dokumentala ez zen bakarrik heldu. Harekin batera, *Herrialde berdea* ipuina ere plazaratu zuten. *Iharra*k idatzi zuen umeentzako istorio gisa eta bere kide batek, Jose Benito Mujika Zumeta *Xenki* zarauztarrak (1950-1972) alegia, ilustrazioak egin zituen. Patuak beste kontu baterako ere batu zituen: biak hil zituen tiroz Guardia Zibilak 1972ko irail odoltsu hartan. *Xenki* Mikel Martinez de Murgiarekin batera eraitsi zuten Lekeitioko etxe batean. Orduko La Gacetan irakurri dugu terroristak zirela eta "tiroz egin ziotela aurre" Guardia Zibilari.

Lekeition, berriz, barra-barra zabaldu zen bestelako "errelato"rik. Etakideok ez ei zioten aurre egin erasoari. Defentsarik egin gabe hil ei zituzten. Sarraskia izan ei zen. 2022ko abuztuan, *Xenki* eta Murgiaren hilketen 50. urteurrenaren bezperan, Eusko Jaurlaritzaren aginduz egindako txosten batek argia ekarri du: Guardia Zibilaren bertsioa gezurtatu ostean, gazte biek ez zutela tirorik egin ondorioztatu du.

Hura ez zen izan tiroketa, sarraskia baino, aitortza, erreparazio eta zigor gabe gelditu den triskantza. Halaber, aurton jakin dugu Aranzadi zientzia elkarteko Javier Buces historialariaren ikerketaren emaitza Txabi Etxebarrietaren (1944-1968) hilketaren gainean. Hor ere zalantza gutxi: Guardia Zibilaren bertsioa faltsua zen. Bilbotar etakidea ez zen hil tiroketa batean; lurrean zetzala exekutatu zuten.

Oraindik ez da *Iharra*ren heriotzaren gaineko ikerketarik plazaratu. Baina zenbait historialarik *Xenki*, Murgia, Txabi Etxebarrieta edo *Iharra* terroristatzat jo dituztenean, ez dute historia ikertzeko ariketa bat egin, jantzi akademikoz aurkeztu badute ere.

Orain irabazi nahi duten beste borroka baterako munizioaz hornitu nahian dabiltza. Horren ondorioz, diktadurari aurpegia ematen hil zirenei "terrorista" etiketa eransten dietenek ez diote batere ekarpenik egiten ezagutza historikoari baina behin betirako erretratatzen dituzte euren buruak eta ordezkatzen dituzten erakundeak.

Historiak, Roger Chartierrek idatzi zuen bezala, "ezin ditu alde batera utzi tiraniaren biktimak ez ezik haien existentzia hutsaren gomuta desagerrarazi nahi dituzten bortizkeriak. Historiak, egia argitzeko bere beharrizanarekin, bere lan egiteko era propioekin, Estatuaren indarkeriak ezabatu dituen baina memorietan bizirik iraun duten istorio indibidual edo kolektiboak identifikatu eta azaldu behar ditu.

Hori da bide bakarra iraganaldi sarritan krudel eta basatiak laga dituen zauri ugariak arintzeko, bide bakarra gaur egungo herritarrei lanabes kritikoak emateko historiaren faltsifikazioak baztertzeko eta jakintzak ezartzeko. Jakintza horiek gabe ez baitago demokraziarik".

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

TELELAGUNTZA ZERBITZUA GREBAN

Beti On Eusko Jaurlaritzak azpikontratatutako telelaguntza publikoko zerbitzua da, eta San Inazion dauka egoitza zentrala. Bertako langileak borrokan ari dira, hitzarmena eguneratzeko eskatzen baitute, egungo baldintzak duintze aldera.

Testua eta argazkiak: Maite Txintxurreta Agirregabiria

Egunero 24 orduz funtzionatzen duen zerbitzua da BetiON, eta larrialdi egoerei nahiz premia sozialei erantzuten die, espezializatutako lantaldeari esker. Zerbitzua emateko, telefonoari konektatutako sakagailu bat ematen zaie adineko pertsonei eta mendekotasun edota bazterketa egoeran daudenei.

Iazko azaroan hasi zituzten negoziaketak, eta martxoan ekin zieten beharginek protesta eta mobilizazioei. Azkenaldian horiek indartu dituzte, erantzunik jasotzen ez dutela ikusita, eta hilabete osoko greba bana egin dute uztailean eta abuztuan. Oraingoak ere iraila osoan zehar jarraituko du. Besteak beste, KPIa soldata oinarrietan bermatzeko eta lanorduak murrizteko eskatzen du LAB, ELA eta UGT sindikatuek osatzen duten langileen batzordeak, ESK-ren sekzio sindikalarekin batera. Hala, euskal sektore soziosanitarioan nagusi diren baldintzekin parekatu nahi dituzte haienak.

"Gainkargatuta" ei dago zerbitzua. 65.000 erabiltzaile baino gehiago eta 140 langile baino gutxiago ditu. Gainera, erabiltzaile kopurua 100.000ra arte areagotzea du helburu jaurlaritzak. Hala, ezinbestekotzat jotzen dute plantilla handitu eta egungo baldintzak hobetzea, baldin eta zerbitzuaren kalitatea bermatu nahi bada.

Tunstall Televida-GSR-Grupo IMQ da orain arte Euskal Autonomia Erkidegoko telelaguntza zerbitzua kudeatu duena. Uztailean amaitu zen lehiaketara aurkezteko epea enpresentzat, eta ILUNION SOZIOSANITARIO S.A. eta IBERMÁTICA S.A. ABEE da lizitatzaile berria. Esleipenen aldaketak plantillaren gain duten eragina azpimarratu dute langileek: "Lan baldintzak arriskuan jartzen dira eta eskala bikoitzak sustatzen dira". Horrez gain, pribatizazioak ekarritako kalteen ardura Eusko Jaurlaritzari leporatu diote: "Lizitazio publikoaren bidez duen erantzukizuna saihesten du". Lehiaketa merkatura 71 milioiko aurrekontuarekin atera izana "gutizia hutsa" ei da, are gehiago, aintzat hartuta azken aurrekontuak (41 milioikoa) ez duela islarik izan lan-baldintzetan eta laguntzaren kalitatean, azaldu dutenez.

Gutxieneko zerbitzuak errespetatzeko eskaera

Salatu dute enpresak ez dituela greba egunetako zerbitzu minimoak errespetatu, eta lanpostuak aldi baterako kontratuekin bete dituela. Jokabide hori gaitzesteaz batera, borrokan jarraitzeko asmoa berretsi dute langileek. Uste dute jaurlaritzak esku hartu behar duela patronala negoziatzera bultzatzeko.

BOST HAMARKADA GUARDIA ZIBILAK ‘IHARRA’ HIL ZUENETIK

50 urte bete dira Guardia Zibilak Jon Andoni Aranguren Mujika Deustuarra Urdazubin hil zuenetik. 1972ko irailaren 20an Xaretako bide hartan gertatutakoa liburu eta egunkari askotan irakurtzeko parada izan dugu denbora guzti honetan. Tamalez, Iharraren hilketa justifikatzen duen Guardia Zibilaren bertsioa da lau haizetara zabaldu eta ezarri den bakarra.

6 urte zituela heldu zen Iharra Deustura bizitzera. Aski ezberdina zen Juananek ezagututako Deustua gaur egungoarekin alderatuta, izan ere, orain auzoan nabarmentzen diren eraikinen ordez, garai hartan zelaiak eta baserriak ziren nagusi. San Felizisimo eliza zaharraren atzealdean zeuden baserri guztien artean, Iñakirena zuen gogokoen eta bertara joaten zen loreak eta tomateak erostera. Senideen arabera, pozik joaten zen Jonan Iñaki bisitatzera, behin hura astoa jotzen ikusi eta etxera negarrez itzuli zen arte. La Salle ikastetxean ikasi zuen eta ostean, Bilboko Bertendonara joan zen UBI ikasketak egitera, hori baitzen garai hartako Bilboko institutu bakarra. Deustutik institutura joateko, Deustuko zubia igaro behar zuten berak eta Bilbora joaten ziren beste Deustuar guztiek ere.

San Felizisimo elizan txistua jotzen eta euskaraz hitz egiten ikasi zuen bertako Aita Mateo apaizari esker. Etxekoen belarriak izorratzen zituen Juananek txistuarekin, baita garai hartan auzokide zuen Jabi Salutregirenak ere. Egun, senideek mimo handiz gogoratzen duten pasartea da hau. Txistuari esker, Deustun ospatu zen Olentzeroren lehen kalejira bultzatu eta bertan parte hartzeko aukera izan zuen 1968. urtean. Euskal kulturaren garrantziaz jakitun, Herrialde Berdea haurrentzako ipuina idatzi zuen. Bertan Euskal Herriak bizi duen gatazka haurren ikuspegitik eta haurrentzako azaltzen da. Oraindik ere, liburua debekatuta eta zentsuratuta dago Espainian eta Hego Euskal Herrian. Iparraldean ordea, ikastoletan lantzen da aspaldi.

Iharra ETAren bilera batera zihoan Guardia Zibilak segada batean harrapatu zuenean. Bidean, Joseba Abaitua eta Jon Ander Larreategirekin batera joan arren, beste bi kideek ezkutatzea lortu zuten. Nagusitzen den bertsioaren arabera, Jonan Guardia Zibilarekin izandako liskar armatu batean hil zen. Alabaina, Jonanek ez zeraman armarik soinean, bizkarrean zeraman motxilan arropa, janaria eta betaurreko bi baitzituen soilik. Guardia Zibilez inguratuta ikusi zuten senideek Iharraren gorpua azkenekoz Urdaxeko beilatokian eta ondo baino hobeto gogoratzen dute bularra tiroz josita zuela eta aurpegian burua zeharkatzen zuen bala zulo bat zegoela. Iharrarena bezalako halako beste hainbat gertakarik zeharkatzen dute Euskal Herria goitik behera. Hala gogoratu dute Deustuko Done Petri plazan irailaren 23an egindako omenaldian: “Herri honek bortxazko historia luzea du, eta bortxa horren ondoriozko gertakizun guztiak memoriaren parte dira. Memoriak beraz, denon ondarea behar du izan”.



Deustuko frontoiari ‘Iharra’ izena jarri diote hainbat herritarrek.

berbetan

IRATXE PALACIOS eta GARAZI ASCACIBARrekin

Aste Nagusia 2022

“Bilboko Konpartsek egiten

Deustuko Tintigorri Konpartsako kidea da Iratxe Palacios eta hain zuzen ere horregatik izan da aurtengo Bilboko jaietako txupinera. Garazi Ascacibar deustuarra berriz, Bilboko Konpartsetako kidea da aspaldi. Oroitzapen politak ekarri dizkigu hiruroi Arriaga plazan elkartu eta hain berezia izan den Aste Nagusiko gertaerez mintzatzea.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

duten lana ikaragarria da”

Zer sentitu zenuen Bilboko Jaietako txupinera izango zinela jakin zenuenean, Iratxe?
Gogoan daukat dena Whatsapp bidez bidali zidatela. Koronabirusa zela eta, zozketa guztiak telematikoki egin ziren. Orokorrean oso pozgarria izan da niretzako aurtengo Aste Nagusiko txupinera izatea. Esan behar dut ere batzuetan arraro samar eraman dudala, ez nuen inondik inora espero *haterrak* izatea! Une oro ni naizen bezalakoa izan naizela deritzot, baina konpromiso handia da egunero hitzak neurtzen ibili behar izatea.

Garazi zu berriz jai batzordeko kidea zara. Noiz hasi ohi zarete Aste Nagusia antolatzen?
Bilboko Konpartsok urtean zehar hainbat ekintza ezberdin antolatzen ditugu: Konpartsakide eguna, Txosnaganera igoera… baina zalantzarik gabe Aste Nagusia eta Inauteriak dira ekintzarik potoloenak. Inauterien ostean hasi ohi gara jaietan pentsatzen, batez ere zer egin nahi dugun eta zer ez erabakitzen. Aurten gainera, askoz gehiago neurtu behar izan dugu egitaraua, oso diru gutxi zegoelako. Data hurbiltzen hasten denean astero bildu behar izaten gara eta saiatzen gara uztailean dena prest uzten, sortu daitezkeen arazoei denboraz aurre egin ahal izateko.

Nolakoa da txupinera eta pregoilariaren eguna? Marijaiarekin ikusi zaituztegu goiz goizetik.
Eguna 09:45ean hasi ohi genuen. Jai Batzordeko kideekin Arriagan elkartzen ginen eguneko lehen txupinazoa botatzeko. Txupinazoa jaurti ostean handik hona ibili behar izaten ginen ahalik eta ekintza gehienetara heltzeko.

Jende guztiak nahi du zurekin argazkia egin eta batzuetan ezinezkoa da, oso denbora gutxi daukagulako leku batetik bestera mugitzeko. Leku guztietara korrika joatearen sentsazioarekin ibiltzen ginen beti, neketsua bezain aberasgarria zen.

Zure kasuan Garazi, nolakoa da jai batzordeko pertsona baten eguna? Ardura asko izan ohi dituzue?
Guk ere eguna ordu berean hasten genuen, izan ere, jantzia izan duten mementutik aurrera saiatu gara Itziar eta Iratxe bakarrik ez uzten. Positiboki baloratzen dugu jendeak txupinerarekin eta pregoilariarekin argazkiak atera nahi izatea, baina bestela ezinezkoa da ekintza guztietan presentzia bermatzea. Aurreko eguneko bazkarian adosten dugu zein ekintzara joango garen hurrengo egunean, eta horrela lotzen dugu aste osoko agenda. Gustatuko litzaiguke antolatzen diren jarduera guztiak bisitatzea baina ezinezkoa da denera heltzea eta batzuei lehentasuna eman behar izan diegu: ospitalera bisita, jubilatuen bazkaria, umeentzako ekintzak…

Egunean zehar egiten diren ekintza askotara joateko aukera izan duzu aurten, Iratxe. Zeinek harritu zaitu gehien?
Ezin dut bat aukeratu, era guztietako jarduerak daude eta denek dute

“Konpromiso handia da egunero hitzak neurtzen ibili behar izatea”

▷ ▷ SAKONEAN

“Bederatzi egunez egiten dugun hori guk bakarrik egiten dugu”

Konpartsa mailan. Zer nolako ekarpena egiten dio Tintigorrik Bilboko Aste Nagusiari, Iratxe?

Gu ez gara konpartsa politiko bat. Hainbat ekintza antolatzen ditugu beste konpartsa batzuekin batera, eta aldi berean, beste askotan egoten gara parte hartzen. Besoak zabalik dituen konpartsa bat garela esango nuke. Deustuko konpartsa bat izaten jaio zen baina egia da gutxika-gutxika muga asko gainditu ditugula, eta Galdakaora arte ere heldu dela! (barreak).

Eta Kaskagorrik?

Gaztetasuna eta errebeldia, hori baita gure edabe magikoa. Bilboko gazte ezkertiarrei topagune bat eskaintzen diogula esango nuke. Gainera bederatzi egunez egiten dugun hori guk bakarrik egiten dugu, eta gero guk geuk ere desmuntatzen dugu. Nire ustez meritu handia dauka.

berezitasunen bat. Hala ere, zerbait azpimarratu beharko banu, Bilboko Konpartsek egiten duten lan ikaragarria aipatuko nuke, halako tamaina duen egitarau bat aurrera ateratzea lan handia delako.

Aste Nagusian zehar salatutako erasoek gogorarazi digute jaigunea oraindik ez dela emakumeentzako eta pertsona arrazializatuentzako espazio seguru bat. Nola egiten dio aurre jai batzordeak horri?

Jai Batzorde mistoan urte askotan zehar landutako protokolo bat daukagu eta hau gauza-mukuru baten ostean aktibatu egiten dugu. Aurtengoa ezberdina izan da, egunez egun salaketa “handitzen” saiatu garelako. Hasierako egunetan elkarretaratzea deitu genuen, eta jaien amaieran ordea, jaigune osoa inguratu zuen giza kate erraldoi bat egitea lortu genuen. Jaietan goizero biltzen den erasoen lantaldea dago, bertan aurreko egunaren balorazio bat egiten da eta lantalde horrek erabakitzen du protokoloa aktibatu behar den edo ez.

Saiatzen gara daukagun informazio guztia Udalarekin eta Jai Batzorde mistoarekin kontrastatzen, baita Udaltzaingoarekin ere.

Aurten bandera marroia El Correo egunkariari esleitu diozue. Zergatik?

Bandera marroia Aste Nagusia oztopatzen duenari eman ohi diogu. Konpartsen koordinazio mahaian oso errez onartutako proposamena izan zen, izan ere, argi ikusi genuen El Correo egunkariaren helburu bakarra morboa sortzea zela. Guk emandako informazioa zabaldu beharrean, gure artean arrakalak sortzeko ahaleginetan ibili zela deritzogu, gure lana gutxiesteko asmoz. Jai Batzorde mistoan, hau da, Udalarekin elkarlanean aritutako mahaian ez dugu gure artean inolako arazorik izan.

Aurretik esan bezala, Aste Nagusian zehar antolatu diren ekintza gehienetan egon zarete. Nolakoa izan da euskararen presentzia haietan?

G: Jai euskaldun batzuk egitea gure oinarrian doala esango nuke. Jaiak euskaldunon topagune bezala ere ulertzen ditugu eta uste dut ekintza guztietan ez bada, gehienetan bermatzen dela euskararen presentzia. Halaber, badira hori sustatzen duten konpartsa batzuk eta Bilboko Konpartsok ere bat egiten du horrekin.

I: Ni euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten saiatu naiz, baina egia da euskarari lehentasuna eman diodala. Zuk niri euskaraz egiten badidazu, nik ahal dudan guztia euskaraz erantzuten saiatuko naiz. Txupinera izango nintzela jakin baino lehen ere mintzapraktika saioetara joaten nintzen.

Tintigorri konpartsako kidea zara Iratxe, eta Garazi zu berriz, Kaskagorrikoa. Zer da zuentzako konpartsakide izatea?

I: Jaiak beste era batera bizitzeko aukera ematen dizu konpartsak. Familia handi baten parte sentiarazten zaitu, egunero harritzen zaituena. Jende berria ezagutzeko edota dagoeneko ezagutzen dituzun horiekin harremanetan jarraitzeko aukera da.

G: Ados nago Iratxerekin, nire ustez konpartsak eskola bat dira. Konpartsa batek egunero goiz goizetik gauera arte jaiez disfrutatzeko espazio bat ematen dizu. Horrez gain, jaiak benetan nolakoak diren ikusteko aukera bat da, azkenean jaiak barru barrutik bizi dituzulako.

Eskala txikiagoan bada ere martxoan Deustuko Jaiak ospatzen dira. Hitzordu garrantzitsua da zuen agendan?

I: Aspaldi ez naizela Deustuko Jaietara joaten, data horien inguruan azterketak izaten ditudalako. Datorren urtean inauteriak bizi ahal izango ditut lehenbizi. Tintigorri konpartsarentzako oso garrantzitsuak dira. Deustuko Jaiak lagunak ikusteko aukera bezala ikusten ditut.

G: Niretzako badira garrantzitsuak. Deustun ere beti izan naiz konpartsa bateko kide eta konpartsarekin ez bada, kuadrillan ere ekintza guztietan parte hartzera animatzen gara.

"Argi ikusi genuen El Correo egunkariaren helburu bakarra morboa sortzea zela"

OMENALDIAK

Joseba Larrondori omenaldia San Mamesen

Deustuko itsasadarreko pasealekuan gertatu zen ezbeharra joan den irailaren 4an. Kotxe bat galtzadatik irten zen Ballets Olaeta kaleko 14. zenbakian eta farola bat tolestu eta zuhaitz baten aurka jo ondoren Joseba Larrondo deustuarra aurretik eraman zuen. Ingurua jendez gainezka zegoen momentu hartan, izan ere, Athleticek eta Espanyolek San Mamesen jokatutako partida amaitu eta gutxira etxera itzultzen ari ziren jarraitzaile asko. Oihartzun handia izan du istripuak Deustualdean, izan ere Athleticzalea, Tintigorri Konpartsako kidea, Deustu Futbol Elkarteko bazkidea eta Tomateraren jarraitzaile sutsua zen Larrondo. Halaber, Done Petri elizan egindako hiletaz gain, senideek omenaldia egin zioten joan den irailaren 17an San Mamesen.

KIROLA

San Inazioko neskek Euskal Herria Kopako 'B' finala irabazi dute penaltietan

Irailaren 4an Elorrietan, Bizkerreren aurka jokatutako finalean garaipena lortu zuten 11 metroetatik Naiara Barrigak entrenatzen dituen neskek. 50. minutuan Getxoko taldea aurreratu zen baina San Inaziok ez zuen amorerik eman eta azken minutuan berdinketa lortu zuen markagailuan. Azkenean, garaipena lortu zuten, penaltietan 7-6 irabazi ostean. Finalean txapelketako A eta B multzoetako onenak lehiatu ziren. Sanik jokatutako hiru partidetatik bi irabazi zituen. 1-0 Berriozarren aurka eta 3-2 Oiartzunen aurka hain zuzen. Azkena Mulierren kontra galdu arren finalerako sailkapena lortu zuten aurreko bi garaipenei esker. Garaipen horren ostean lehenengo nazionaleko liga hasi zuten irailaren 11n Pradejon B taldearen aurka.

KULTURA

'Liburuaren arbola' erakusketa ibiltaria ondu du Euskararen Etxeak

Irailean abiatu eta 2023ko martxoan amaituko da Gorka Arrese editoreak apailatutako erakusketa. Datozen hilabeteetan Portugaletera, Ondarroara, Getxora, Amorebieta-Etxanora eta Gernika Lumora eramango dute eta Arresek berak hitzaldi bana egingo du udalerri horietako bakoitzean. *Liburuaren arbola* erakusketak "liburuaren izaera azalduko du: hizkia, idazketa, diseinua, inprimaketa. Bisitariak ezagutuko du hizkiek nolako anatomia daukaten, testuek nolako formak hartzen dituzten, liburuak zein parte dauzkan eta nola izendatzen ditugun euskaraz". Era berean, erakusketak lau helburu nagusi ditu: liburua zer den ezagutzea, honen zati nagusiak identifikatzea, liburu batean parte hartzen duten eragileak aztertzea eta azkenik, euskal literaturara eta liburugintzara gerturatzea.



100 urte beteak izategatik, Deustuko Rementeria loradenda omendu dute

Bilbon mende oso bat zabalik daramaten saltokiak saritu ditu Bilboko Udalak "*EHUN: Betiko dendak betirako*" proiektuaren izenburupean. 61 establezimenduen artean, egun Lehendakari Agirre etorbideko 18. zenbakian kokatuta dagoen Rementeria Loradenda omendu dute. Oroigarriak banatu eta ekitaldi xume bat antolatzeaz gain, komertzio horien guztien historia EHUN izeneko liburu batean bildu dute. Rementeria loradendaren historiari dagokionez, Pantaleon Rementeriak, egungo jabearen aitonak, baratzezaintza eta lorezaintza ikasi zuen Frantzian 1900eko hamarkadaren hasieran, eta 1915. urte inguruan hasi zen lanean. Liburuan irakur daitekeenaren arabera, Bilboko Udalaren hornitzailea izan zen urtetan. Gaur egun, familia negozio honetako hirugarren belaunaldiak jarraitzen du loreez eta baratzezaintzaz arduratzen.

Urtea: 1961

Txema Luzuriaga

Cadenas Vicinay

Duela urtebete atal honetan Deustuko industriaren inguruan hitz egiten hasi nintzen, azken honek Bilbon zein Deustun izandako eragina 11 iruditan islatuko nuelakoan. Alabaina, 11 zenbakiak txiki geratu zaizkit, gutxika-gutxika Deustuko, Erriberako, Zorrotzaurreko eta Elorrietako industriako irudiak atera zaizkidalako. Oraingoan Deustun eta Otxandion lantegiak zituen Cadenas Vicinayren irudi batekin hasiko naiz, atzean desagertutako Euskalduna auzoa ikusten da. Enpresa hau 1929. urtean sortu zen eta besteak beste, 2 eta 90 milimetro arteko kateak, 500 eta 30.000 kilogramo arteko polea diferentzialak eta jasotzeko gainerako tresnak fabrikatzen zituen. Deustuko Erriberako lantegia utzi eta Bilboko Portura mugitu zen. Argazkia Sancho El Sabio Fundazioak utzitakoa da. Gasteiz.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

uriola
uriola.eus

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zertan nabaritu duzu gehien prezioen igoera?

Maddi
Bergara
Eguneroko bizitzan orokorrean. Egunero kontsumitzen ditugun produktuen prezioak direlako gora egiten dutenak.

Alberto
Barakaldo

Eguneroko erosketak egiterakoan alde batetik eta etxeko fakturak ordaintzerakoan bestetik. Tabernetan eta jatetxeetan ere nabaritu dut.

Ina
Soraluze
Kañetan gehienbat, asko garestitu dira. Edozein lekutan 2.50€ balio dute.

Juanito
Bergara

Orokorrean nabaritzen da bizitza garestitu dela, baina bereziki supermerkatuan eta frutadendan. Hain zuzen egunero egiten ditugun erosketetan.

Peio
Algorta

Arraultzetan, ia euro bat gehiago balio dute.

Idoia
Bilbo

Gehienbat produktu zehatzetan, esnearen prezioan esaterako eta tabernetara poteatzera joaten naizenean.

>> BERTSOLARITZA

BERTSOLARITZAN LEKU BATEN BILA

Janire Arrizabalaga, Araitz Katarain eta Izaro Bilbao bertsolari gazteek sortutako taldea da Lokatz Loreak eta hauen arabera, "frikismoa bertsolaritzara eramatea" da egitasmoaren helburu nagusia. Abuztuan bertso saio "frikiak" antolatu dituzte Deustuko Gazte Lokalean eta Zornotzako gaztetxean, eta irailean, Lekeition, Portugaleten eta Gernikan izan dira.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Lokatz Loreak

Lokatz Loreak taldeko Janire, Araitz eta Izaro

Guztira 21 bertsolarik parte hartu dute abuztua eta iraila artean antolatu dituzten 'friki-saioetan'. Bost saio tematiko egin dituzte, denak gai ezberdin baten inguruan girotuak. Lehena Zornotzan egin zuten abuztuaren 13an eta bi aste beranduago Deustun bertan. Hain zuzen ere, Enare Muniategi, Aitor Etxebarriazarraga, Josune Aramendi eta Ibai Lekuona bertsolariek kantatu zuten Deustuko Gazte Lokaleko taula gainean abuztuaren 27an. Hura *Bertso fashion-week* izan zen eta Muniategiren esanetan, "bertsolariei bertsoaren pasarelan desfilatzea egokitu zitzaigun, arropa berezi eta makillaje zainduarekin".

Hasieran esan bezala, Janire Arrizabalaga, Araitz Katarain eta Izaro Bilbao dira taldearen sortzaileak. Bertso eskola desberdinetan aritu dira hirurak eta duten sormena eta 'frikismo puntu' hori bertsolaritzan txertatzeko lehen ahalegina da sortu berri duten egitasmo hau. Horiek horrela, hirukoteak sareetan azaldu bezala, "bertsolaritzan bere tokia aurkitu ez dutenentzako plaza bilakatu nahi dute Lokatz Loreak". Hots, bertsolaritzan ere jende 'frikia' dagoela aldarrikatzera datoz, jakina, era askotako bertsolariak daudela erakustera. Hauen ustez, belaunaldi berriengana gehiago hurbiltzen diren gaiak egon behar dira oholtzan, normalean lantzen diren gai sozialak alboratu gabe. Hauen hitzetan, "beste gai interesgarri asko landu daitezke". Orain arte egindako saioak bereziak izan dira ez bakarrik tematikagatik, taula gainean ere ikus-entzunezkoak izan duen garrantziagatik ere bai. Izan ere, gaien aurkezpena egiteko proiektore bat erabili dute eta gaiak "antzerki" moduko baten bitartez aurkeztu ditu hirukoteak. Halaber, gai-jartzaile lanak ere haiek egin dituzte. Girotzea alde batera utzita, 'ohiko' bertso-saioak izan dira. Autofinantzaketarako, telazko poltsak kaleratu dituzte, eta saio bakoitzean 3 euroko sarrera ordaindu behar izan dute ikusleek.

Deustuko bertso saioko parte-hartzaileak

Pisukide euskaldunak bilatzeko tresna abian



Pisukide euskaldunak bilatzeko zerbitzua abian jarri du Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Topaguneak. “Etxe bila dauden edo hainenean toki bat duten euskaldunei” zuzenduta dago eta lagun horien guztien izenak datu base batean bildu ostean harremanetan jartzeko zerbitzua eskaintzen du ‘Pisukide’ zerbitzuak.

Irailaren 26an hasiko da Egunean Behin jolasaren 10. denboraldia

Apirilaren 10ean amaitu zuten 9. denboraldia eta maiatzean hartu zuten “euskaraz mugikorrerako sortu den denborapasarik arrakastatsuena’ berritzeko eta itxuraldatzeko tartea. Atseden “luzeago” baten ostean, irailaren 26an abiatuko dute Egunean Behin jolasaren 10. denboraldia. Codesyntax enpresak adierazitakoaren arabera, denboraldi bateko zurrunbiloan baino, nahiago izan dute “berritze prozesuan zentratzea, aplikazioak merezi dituen berrikuntzak garatzeko”.

>> ARGAZKILARITZA

BILBOKO URIOLAREN UDAKO ARGAZKI LEHIAKETAK BADITU IRABAZLEAK

Alaitz Barandiaran eta Joseba Barandiaran aita-alabak izan dira, hurrenez hurren, kategoria orokorrean eta Bilboko argazkien kategorian boto gehien jaso dituzten lanen egileak. Alaitzena Madeiran egina da, eta ur-jauziaren perspektibarekin jolastu du egileak, ikus daitekeenez. Josebarenean, berriz, Bilboko itsadarra ageri da, Mesedeetako zubitik begiratuta.

Lehenengoz antolatu du aurten Uriola.eus atari digitalak udako argazki lehiaketa. Kategoria bi izan ditu, eta guztira 19 lan aurkeztu dituzte irakurleek. Irabazleak hautatzeko prozedura ere azken horien esku egon da, eta 192 boto jaso dira denera.

Parte hartzaileek hainbat txokotan egindako argazkiak bidali dituzte, Bizkaitik (Muskiz, Ondarroa, Armintza…) hasi eta euskal mugez kanporaino (Aragoiko Pirinioak, Portugal…). Bilboko argazkien kasuan, hiriko kaleen eta parajeen ikuspegiak nahiz Aste Nagusiko jai giroarekin lotuak egon dira aurkeztuen artean.

Irabazlea, Bilboko argazkien kategoria.

Irabazlea, kategoria orokorra

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

21 urte betetzera doa PREST! aldizkaria eta ez dira gutxi izan denbora guzti honetan orrialde hauetan agertu diren taberna, jatetxe, ogidenda eta gozotegiak.

Deustualdean lantzen diren pintxo eta platerentzako espazioa da Pintxodromoa. Orrialde hauei esker, gure kaleetan ikusten ditugun pintxorik berezienak egiten ikasi dugu, baita dastatu ere!

Ikasturte honetan pintxo eta plater bereziak ezagutzen jarraitu nahi dugu. Beraz, Deustualdean taberna, jatetxe, edota gozotegi bat baldin badaukazu eta zure kartako pintxorik bereziena ezagutzera eman nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan!

bilbokoaldizkariak@gmail.com 94 447 10 42

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00
BORDATXO JATETXEA
San Pedro plazako frontoiaren atzean

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

DANEL ABANDO OLABARRI
Irakurzalea

Literaturaren jagolea

Pandemia baten erdian, itxialdi garai betean, Kerri Maher-ek zabalkuntza prozesu oso bat egin eta *Pariseko liburu-saltzailea* eleberri zoragarria idatzi zuen.

Bertan Sylvia Beach estatubatuarraren bizipen garrantzitsuenak aurkezten zaizkigu, Frantziako estatura bere ametsari jarraiki doana: Shakespeare and Company zabaltzea, ingeles eta frantses literaturak elkartuko dituen liburu-denda. Haatik, hori baino askoz gehiago egingo du Sylviak, XX. mende hasieran ingelesez idatzitako literaturaren eta haien jatorriko herrialdeetan onartuak ez ziren idazleen (Belaunaldi Galdua) babesleku bilakatuko baita liburu-denda. Hamaika oztopo eta debekuri aurre eginez, gainera, XX. mendeko literatura betiko eraldatu eta ondorengo idazle handien akuilu izango den James Joyc-en *Ulises* maisulana argitaratuko du. Beranduago, bere editore eskubideei uko egingo die (Randome House editorialaren mesedetan), liburua AEBn legeztatua eta argitaratua izan dadin.

Emakume eta lesbiana, gizonezkoek kontrolaturiko gizarte heteropatriarkalean. Lagun eskuzabal eta nekaezina garai zailenetan. Literaturaren maitale eta jagole sutsuena izan zen Sylvia. Azkenean, naziek liburu-denda ixtera behartu zuten, haiei liburuak saltzeari uko egin baitzion. Zorionez, literaturak ez du mugarik ezagutzen, eta liburuek ematen zioten bizipoza baliatuz aurrera egiten jakin zuen, burua tente eta bere ametsei leial. Zorioneko gu, oztopoak oztopo, gaur egun *Ulises* eleberria euskaraz gozatzeko aukera dugulako.



ANDER ANAKABE LEKUE
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Norbere mundu intimo

Irailean egin ohi da
Plangintza ta egitarau
Zenbat aldiz izan dugu
Ezjakintasuna arau
Pandemiaren garaian
Zalantzak ziren hamalau
Orain bueltan egoteak
Ni bereziki pozten nau
Covid aurreko gogoak
Oraindik hementxe dirau
Faltan botatzen genuen
Betiko normaltasun hau

Udaberrian korrika
Izan dugu arkupea
Euskara Aurrera-k utzi du
Gazteentzako tartea
Bueltan daukagu kultura
Bueltan daukagu artea
Ta hizkuntza ohituretan
Eman dezagun trukea
Euskaraldia da urte
Honen azken apuntea
Hauxe izango delako
Gure hizkuntzaren urtea

www.bilbaoeuskaraz.eus

DANTZATU GUREKIN!

EMAN IZENA!

BIHOTZ ALAI
FOLKLORE DANTZA TALDEA

INFO +

bihotzalaidt@hotmail.com

Bihotz Alai Dantza Taldea

@bihotzalaidt

EUSKARARA HURBILTZEKO HARRERA IKASTAROA

LIMBA BASCA CURSURI PENTRU I MIGRANTI

CURSO DE EUSKARA PARA MIGRANTES

COURS D'EUSKARA POUR DES MIGRANTES

دورة في لغة ؤشكيرى للأجانب

EMAN IZENA! MATRICÚLATE!

Telefonoa: 944 471 042

Helbide elektronikoa: berbaizuko@gmail.com

Helbidea: Ramon y Cajal 42, behea edo Ramon y Cajal 8, behea (09:30-13:30)

60 ORDU
22€
60 HORAS

Berbaizu euskara elkartea

ekuador ETXEA

aek

HABE
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO